

Helburu didaktikoak	
1. Adierazpen aljebraikoak eraldatu, eragiketak eginez eta propietateak aplikatuz.	<p>1.1. Erroketa eragiketa ulertzen du berreketaren alderantzizko eragiketa gisan eta aplikatzen daki.</p> <p>1.2. Bigarren mailako ekuazioen kasu partikurrak aljebraikoki ebatzi ditu. ($b=0$ eta $c=0$).</p> <p>1.3. Soluzio kopuruari buruzko hausnarketa egin du.</p>
2. Neurketa-arazo bat duten problemak ebatzi, triangeluen antzekotasuna eta triangelu zuzenen teorema baliatuz, eta teorema horien baldintzak betetzen direla egoki justifikatu.	<p>2.1. Triangelu zuzenaren aldeak kalkulatu ditu, Pitagorasen teorema betetzen dela ziurtatu ondoren.</p> <p>2.2. Triangeluaren aldeak eta angeluak kalkulatu ditu, antzeko triangeluen propietateetan oinarrituz eta propietate horiek betetzen direla ziurtatu ondoren (Tales-en teorema).</p> <p>2.3. Triangeluen propietate eta teoremetan oinarritutako problemak ebatzi ditu: problema ulertu, planifikatu, gauzatu eta emaitzaren onargarritasuna justifikatu eta emaitza komunikatu du.</p>
3. Oinarritzko irudi eta gorputz geometrikoak eta haien osagaiak identifikatu eta planoan irudikatu, haien formari eta kokapenari behatuz.	<p>3.1. Geometria lauko elementu anitzak identifikatu eta irudikatu ditu GeoGebra aplikazioa baliatuz.</p> <p>3.2. Poliedro eta biraketa-gorputzak identifikatu, izendatu eta ezaugarriak deskribatu ditu.</p>
4. Irudi lauen eta gorputz geometrikoen azalera eta bolumena zeharka neurtu eta emaitza adierazi, neurketa planifikatuta eta emaitza adierazteko matematikaren berezko hizkuntza baliatuta.	<p>4.1. Irudi lauen eta gorputz geometrikoen azalera kalkulatu ditu, formulan datuak ordezkatzuz eta eragiketak eginez, eta emaitzak adierazi ditu.</p> <p>4.2. Gorputz geometrikoen bolumena kalkulatu du, formulan datuak ordezkatzuz, eta eragiketak eginez, eta emaitzak adierazi ditu.</p> <p>4.3. Azalera eta bolumenari lotutako neurrien konparaketak egin ditu, behar denean unitate-aldaketak eginez.</p>
5. Bi magnituderen arteko erlazio zehatzak identifikatu eta adierazpen moldeen arteko eraldaketak egin, grafikoki eta aljebraikoki.	<p>5.1. Bi magnituderen erlazio-proporzionalak zein banaketa proporzionalak identifikatu ditu, proporzionaltasun-konstantea kalkulatu du eta erlazioaren adierazpen aljebraikoa idatzi du.</p> <p>5.2. Zuzenen adierazpen molde desberdinak (testuala, grafikoa, aljebraikoa eta taula bidezkoa) ezagutzen ditu eta zuzen motak eta ezaugarriak identifikatzen ditu.</p>